

AEKko ikasleen motibazioak

17. Korrikaren denboran Alfabetatze, Euskalduntze Koordinakundeko ikasleen argazki bat atera genuen, 2010ean Euskaltzaindian egin zen ikerketa balizatuz. Izen burua : *Erramun Baxok eta Jean-Baptiste Coyos, Helduen euskalduntzea eta etorkinak Ipar Euskal Herrian*. 2002-2003 eta 2008-2009ko ikasturte hastapenean bete zituzten fitxak erabiliz ikasleen motibazioak eta helburuak atertzen ahal ditugu. Ikasle helduek, bertakoak ala etorkinek, zergatik eta zertarako euskara ikasten dute ?

Ikasle helduen motibazioak euskara ikasteko

Fitxako galde orokorra da: " *Zerk motibatzen zaitu euskara ikastera* " ?

Zortzi erantzun proposatuak ziren. Ikasle bakoitzak hautu bat baino gehiago egin zezaken. Hona erantzunen zerrenda, hautatuenetarik haste.

- Euskaldunekin komunikatzeko (komunikazioa).
- Euskal kultura nereganzeko (kultura).
- Nere sustriak, nortasuna atxemaiteko (nortasuna).
- Euskal Herrian integratzeko (integrazioa).
- Hizkuntzak maite ditudalako (hizkuntzak).
- Nere haurrak euskara ikasten ari direlako (haurrekin).
- Lana atxemaiteko edo aldatzeko (lanerako).
- Beste motibazio bat. Zein ? (besterik).

AEKko ikasleen motibazioen sailkapena bi ikasturteetan

<i>Ikasleen kopurua</i>	<i>Herrikoak (968)</i>	<i>Etorkinak (804)</i>	<i>Batezbesteko (1.772)</i>
Komunikazioa	585 = %60	519 = %65	1.104 = %62
Kultura	322 = %33	455 = %57	777 = %44
Nortasuna	447 = %46	157 = %20	604 = %34
Hizkuntzak	234 = %24	301 = %37	535 = %30
Integrazioa	118 = %12	371 = %46	489 = %28
Haurrekin	157 = %16	144 = %18	301 = %17
Lanerako	109 = %11	86 = %11	195 = %11
Besterik	48 = % 5	39 = % 5	87 = % 5
<i>Motibazio guztiak</i>	2.020	2.072	4.092

Iturria: Etorkinak, Euskaltzaindia 2010.

Taula honek erakusten du motibazio bakoitza zenbat aldiz hautatua izan den ikasleengandik, jakinez bakoitzak batez beste bi motibazio hautatu dituela. Herriko ikasleak eta etorkinak bereizi ditugu ikusteko bi multzoen arteko berdintasunak eta ezberdintasunak euskararen ikaskuntzari begira. Ororentzat motibazio nagusia da euskaldunen arteko komunikazioa eta motibazio ahulena da euskara lanerako hizkuntza. Alabaina Ipar Euskal Herrian lanbide guti dira euskararen erabilera eskatzen dutenak.

Motibazio pedagogikoak itxurak ematen duen baino garrantzia handiagoa dauka. Egia erran, aipatu bi ikasturteetan 1.772 ikasleetan 719k haurrak bazituzten (%48) eta hauetan 298ren haurrek euskara ikasten dute eskolan (%17). Hain zuzen " Nere haurrak euskara ikasten ari direlako " motibazioa 301 aldiz agertzen da. Beraz, eskolan euskara ikasten duten haurrak dituzten ikasle guzietan euskara ikasten dute elkar euskalduntzen laguntzeko. Gauza bera gertatzen da herrian sortu ikasleekin eta etorkinekin.

Aldiz motibazio ezberdintasunak ere badira. Euskal Herrian sortuak direnen 2. motibazioa da beren sustraiak eta nortasuna atxemaitea eta 3. motibazioa euskal kultura berenganatzea. Etorkinen 2. motibazioa euskal kultura da eta 3. motibazioa Euskal Herrian integratzea. Ohargarri da ikasle etorkinek bertakoek baino garrantzia gehiago ematen diotela euskal kulturari, hain segur herrian hobeki integratzeko. Hots euskal kulturak du sortzen etorkinen eta bertakoen arteko idantitate kolektiboa.

Ikasle helduen motibazioei buruzko ikusmolde orokorra


Motibazioak hiru multzotan bil daitezke erranahi nagusiaren arabera :

- Nortasunaren eremuko motibazioak, kultura, integrazioa eta sustraiak ;
- Motibazio praktikoak, komunikazioa, haurren euskalduntzea, lanerako ;
- Motibazioak intelektualak, hizkuntzak maite eta beste.

Jatorriaren arabera, euskara ikasteko motibazioak

<i>Motibaziok</i>	<i>Herrikoak</i>	<i>Etorkinak</i>	<i>Ikasle oro</i>
Nortasun motibazioak	887 = %44	983 = %51	1.870 = %47
Motibazio praktikoak	851 = %42	619 = %32	1.470 = %37
Motibazio linguistikoak	282 = %14	340 = %17	622 = %16
<i>Motibazio guztiak</i>	2.020=%100	1.942=%100	3.962=%100

Iturria: Etorkinak, Euskaltzaindia 2010.



AEKko ikasleen lehen motibazio andana euskaltasunari lotua zaio. Hizkuntzaren bidez herriko ikasleek beren erroak aurkitu nahi dituzte, eta kultura sakonduz nor diren ulertzen dute. Aldiz ikasle etorkinek Euskal Herrian integratzea bilatzen dute, hizkuntzaren bidez eta neurri ahulagoan euskal kultura landuz. Harrigarri da nortasunari buruzko motibazioak indartsuagoak direla etorkinetan ezinez-eta herriko ikasleetan.

Motibazio praktikoak euskararen erabilerara norabidetuak dira: euskaldunekin komunikatzeko, euskara hurrei transmititzeko, euskararen bidez lan bat edo lan hobe aurkitzeko. Motibazio andana hau bigarren mailan da bai herriko ikasleetan, bai eta ere etorkinetan. Ikusi dugu komunikazioa dela motibazio nagusia ororentzat, aldiz orok ikusten dute euskarazko lanbideak xuhur direla Ipar Euskal Herrian. Motibazio pedagogikoak %16 ikasleenak dira soilik, haurrak ikastolan edo eskola elebidunean baitituzte.

Motibazio linguistikoa ahulena da bi multzoetan. Hizkuntza berri bati interesatzeko hizkuntza hau menperatu behar da, literatura eta beste. Ikaslea borrokan ari da hizkuntzaren zailtasunak gainditzeko. Ez dela oraino gai euskararen « edertasuna » dastatzeko.

Euskara ikasten duten ikasle helduen helburuak

Ikasleen fitxako galdeak eta erantzunak frantsesez ziren bakarrik. Euskareara itzuliz galde orokorra zen " *Zure helburuak zehazten ahal dituzu ?*" Hamar erantzun eskainiak ziren. Hona erantzunen zerrenda hautatuenetarik hasiz.

Helburu bakoitzari buruzko erantzun baikorrak ehunekotan.

<i>Zertarako euskara ikasten dute ?</i>	<i>Herriko (455)</i>	<i>Etorkin (424)</i>	<i>Orotara (879)</i>
1. Adiskidekin sinpleki mintzatzeko	%54	%61	%57
2. Irratiak, telebista ulertzeko	%39	%43	%41
3. Euskaraz frantsesez bezala mintzatzeko	%45	%35	%41
4. Euskaraz ahal bezainbat	%31	%26	%29
5. Ofizioa euskaraz eramateko	%23	%22	%23
6. Haurrak laguntzeko euskara ikasten	%14	%17	%16
7. Euskara hurrei transmititzeko	%18	%8	%13
8. Euskarazko esaldi sinpleak ulertzeko	%9	%14	%11
9. Nozio batzuk ikasteko	%8	%11	%9
10. Euskararekin lanbide bat eskuratzeko	%4	%5	%4
<i>Erantzun baikorren kopurua</i>	1.111	1.033	2.144

Ehunekoez erakusten dute ehun ikasleetan zenbatek aipatu helburua hautatu duten, jakinez batezbeste ikasle bakoitzak bi erantzun eman dituela.

Hamar helburuen sailkapen orokorraz

Helburu hautatuenak ahozko komunikazioari buruzko helburuak dira, nola lehena den "adiskidekin mintzatzea sinpleki", hala bigarrena da "irratia eta telebista ulertzea": ahozko adierazpena alde batetik, ahozko ulermena bestetik.

Hirugarren helburuak ahozko komunikazioaren kalitatea bilatzen du: "euskaraz frantsesez bezain ontsa mintzatzea"; bigarren helburua da herrikoentzat. Biziki helburu handia da, lehenari konparatuz.

Laugarren helburu arrakastatsuen "harremanetan eta lanean euskaraz ahal bezain usu mintzatzea" da. Honek ere ahozko komunikazioarekin badu zer ikustekorik.

"Eskolan euskara ikasten duten haurrak laguntzeko" 6. helburuari begira, kezka pedagogiko handiagoa da ikasle etorkinetan. Eskolan euskara ikasten duten haurren 91 gurasoetan, 73k euskara ikasten dute seme-alabak laguntzeko (%80). Aldiz 92 bertako gurasoetan, 64 dira haurren euskalduntzeaz kezkatzen direnak (%70). Orotara guraso diren ikasleetan %75 dira beren haurrenkin euskalduntzen elkarlaguntzeko gogoia dutenak. Ondorioz helburu hau lehen lerroan ezartzekoa da.

"Euskara haurrei ama-hizkuntza bezala transmititzeko" 7. helburuari begira, ezberdintasuna nabaria da herriko ikasleen eta etorkinen artean. Bertako 188 gurasoetan, 81ek euskara nahi dute beren haurren lehen hizkuntzat (%43). Etorkinetan, 230 gurasoetan 33 dira euskara jarraikarazteko gogoia dutenak (%14). Orotara haurrak dituzten ikasleetan %27k euskara nahi dute familian.

Aldiz, euskararen lanerako balioa ez da lehenetsia. "Lanbide bat euskararen bidez eskuratzea" azken helburua da sailkapenean eta "ofizioa euskaraz eramateko" helburua bosgarrena, nola herrikoentzat, hala etorkinentzat.

Hitz batez erran dezakegu euskarazko komunikazio gaitasuna lehentasuna dela AEKko ikasleentzat. Oinarrizko ezagutza bilatzen dute. Euskara lanean baliatzea ez da gaitasun hori bezain arrakastatsuak. Oro har iduri luke etorkinek oinarrizko komunikazioa lortu nahiko luketela, herrikoek aldiz komunikazio-gaitasun handiagoa bilatuko luketela.

Erramun Bachoc, 22-07-2011.